

EUSKO JAURLARITZAK ETA EROSKIK HITZARMENA BERRITU DUTE, EUSKADIN TOKIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTORE JASANGARRIAGO ETA LEHIAKORRAGOA BULTZATZEKO

- **2013an lehenengo hitzarmena sinatu zenetik, Eroskin tokiko produktuen salmentak % 217 igo dira produktu freskoetan eta % 133 elikagaietan.**
- **Euskadiko 368 hornitzaile komertzialekin egiten du lan EROSKIk. Horietatik % 70 inguru nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak dira, eta tokiko produktuen 2.400 erreferentzia baino gehiago eskaintzen ditu dendetan.**
- **Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak eta Rosa Carabel EROSKIren CEOak tokiko produktuaren aldeko apustua indartzen duen hiru urterako akordioa sinatu dute.**
- **EROSKIk Jundizen duen plataforma logistikoan sinatu da hitzarmena, 'Lurraldea, produktua eta konpromisoa' topaketan. Bertan, Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorearen eragile nagusiak bildu dira.**

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 17a.- Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta [EROSKI](#)k 2013tik duten lankidetzak hitzarmena berritu dute, hiru euskal lurraldeetako nekazaritzako elikagaien industria indartzeko eta garatzeko. Hitzarmenak hiru urteko indarraldia izango du, eta nekazaritzako elikagaien sektore jasangarri, berritzaile eta Euskadin aberastasuna sortuko duenaren aldeko apustu partekatua sendotzen du. Hala, 2013an lehenengo hitzarmena sinatu zenetik, Euskadin tokiko produktuen salmentak % 217 igo dira produktu freskoetan eta % 133 elikagaietan. Bereziki aipagarria da zenbat hazi diren barazkien, haragiaren, gaztaren, esnearen eta Eusko Label zigiluaren babesean egindako produktu guztien salmentak.

Hitzarmena 'Lurraldea, produktua eta konpromisoa' topaketaren esparruan sinatu da. Kooperatibak Jundizen duen freskoen plataforma logistikoan egin da, eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektore osoak parte hartu du. Ekitaldiaren buru izan dira Amaia Barredo sailburua eta Rosa Carabel EROSKIren CEOa, eta bertan izan dira, baita ere, Raúl Pérez de Iratxeta Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea, Asun Bastida EROSKIren tokiko produktuen zuzendari komertziala, foru-aldundietako ordezkariak, HAZIren arduradunak eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien elkarte nagusietako ordezkariak.

Rosa Carabel EROSKIren zuzendari nagusiak hitzaldian azpimarratu duenez, *“hitzarmen hau berritzeak berretsi egiten du EROSKIren baliabide guztiak Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorearen hazkundearen zerbitzura jartzeko dugun borondatea. Bertakoa sustatzea komunitatea eraikitzeke eta gure inguruan benetako eragina sortzeko modua da. Kooperatiba gisa, gure konpromisoa da ekoizleekin eta kontsumitzaileekin balio partekatua sortzea, landa-ingurunearekiko lotura indartuta”*.

Eusko Jaurlaritzak azpimarratu duenez, akordio hau Jaurlaritzaren beraren estrategiaren barruan sartzen da, hau da, Euskadiko lehen sektoreari eta nekazaritzako elikagaien industriari laguntzeko strategiaren barruan, **ekonomiaren, lurralde-kohesioaren eta trantsizio ekologikoaren funtsezko zutabeak baitira**. Alde biek konpromiso bera dute: **Euskadin egindako kalitatezko produktuen komertzializazioa bultzatzea, landa-ekintzailatza sustatzea eta elikadura osasuntsuago eta jasangarriago baterantz aurrera egitea**.

Hala ziurtatu du Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak hitzarmena sinatzeko ekitaldian: ***“EROSKI funtsezko eragilea da Euskadiko elikaduraren balio-katean. Tokiko produktuak eta produktu jasangarriak komertzializatzeko konpromisoa du, eta horrek eragin erabakigarria du nekazaritzako elikagaien sektorearen garapen ekonomikoan eta gure ekoizleen balorizazioan”***.

Hitzarmenaren konpromisoak

Hitzarmenaren baitan, EROSKIk gain hartutako konpromisoen muinean daude jasangarritasuna eta tokiko ekoizleentzako laguntza zuzena. 2022az geroztik, kooperatibak laguntza-programa bat bultzatzen du, sektoreko eragile txikiei hazten, profesionalizatzen eta merkatu gero eta zorrotzagoaren erronkei aurre egiten laguntzen diena, berrikuntzan eta gobernantzan hobekuntzak sustatuta. Gaur egun, tokiko ehun ekoizle baino gehiagok hartzen dute parte programa horretan Euskadin eta elikagaien freskotasuna eta kalitatea ziurtatzen dituen, garraio-kilometroak minimizatzean karbono-aztarna murrizten duen eta sektorea indartzen duen eredua hedatzen laguntzen dute.

Beste jarduteko ildo bat da tokiko produktua EROSKIren dendetan sustatzea eta ikusaraztea, kontsumitzaileek errazago identifika ditzaten seinaleztapenaren eta gune nabarmenen bidez. Horrez gain, nekazaritzako elikagaien sektorearekin eta administrazio publikoekin harreman egonkorrak eta baliagarriak sortzeko xedea du, Euskadirentzat etorkizun jasangarriagoa eraikitzeke konpromiso partekatuan oinarrituta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du nekazaritzako elikagaien sektorearen inguruko lankidetzat instituzionala dinamizatzeko konpromisoa, EROSKIrekin komunikazio arina eta etengabea bermatzeko. Hitzarmenaren arabera, proiektu bateratuak sustatuko dira erreferentziazko zentro teknologikoekin, hala nola Azti, Neiker, Erika eta Basque Culinary Centerrekin, berrikuntzan, elikagaien segurtasunean eta produktu berrien garapenean aurrera egiteko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak lehen sektorearen ekoizpena sustatuko du, ekintzailatza-

ekimenak babestuko ditu, eta, aldi berean, Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-kateko eragileen lana aintzatetsiko du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko Zuzendaritza

Patricia Martín Sanchidrián
comunicacion@eroski.es

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila
Prentsa-arduraduna

Erik Salazar
e-salazarrios@euskadi.eus